



HAUR ETA GAZTE LITERATURA ESKOLAN V

UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAREN AURKEZPENA ETA PROGRAMA

- **ANTOLATZAILEAK**

Galtzagorri elkartea eta UPV/EHU-ko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Saila, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundua.

- **ARDURADUN AKADEMIKOAK**

Miriam Luki (Galtzagorri Elkartea) eta Karla Fernández de Gamboa (UPV/EHU)

- **AURKEZPENA**

Irakurketaren inguruan gaurko gizartean eta, bereziki, hezkuntza-esparruan dagoen kezka bati erantzuteko asmoz sortu da ikastaro hau. Zehazki, irakurketa literarioak eskoletan duen lekua hobetzeko, eta irakurketan bitartekari diren irakasle edo irakaslegaien formazio literarioa aberasteko eskaintza egin nahi dugu ikastaro honen bidez.

Izan ere, haur eta gazteak irakurketa literarioan trebatuko badira, ezinbestekoa da irakasleen eta irakasle izango direnen gaitasun literarioan sakontzea. Era berean, funtsezkoa da hezkuntzako profesionalei haur eta gazte literaturaren inguruko ezagutza eta baliabideak eskura jartzea, ondoren beren eguneroko lanean erabil ditzaten.

UPV/EHU-ko Unibertsitate Hedakuntzako Ikastaroen eskaintzaren barruan eskainiko da ikastaroa, 2024ko urtarrilean hasita.

- **IKASTAROAREN HARTZAILEAK**

Bi hartzaile-mota ditu ikastaro honek:

1. Irakaskuntzan diharduten maisu-maistrak eta hezkuntzaren munduko profesionalak.



2. Unibertsitateko ikasleak, bereziki hezkuntza ikasketak egiten ari diren etorkizuneko maisu-maistrak, hots, Lehen Hezkuntza zein Haur Hezkuntza Graduak egiten ari diren ikasleak. Era berean, hezkuntzarekin zerikusia duten beste titulazioetako ikasleak (Pedagogia, Gizarte Hezkuntza...) eta giza zientzietako ikasleak ere (Filologiak, Arte Ederrak) beren formazioa aberastuko dute ikastaro honekin.

3. Gaian interesa duten bestelako pertsonak.

- **HOMOLOGAZIOA**

Ikastaroak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren homologazioa onartuta du Unibertsitate Hedakuntzako Ikastaroaren modalitatean.

- **EBALUAZIOA**

Ikastaroaren aprobetxamendu ziurtagiria eskuratzeko, bi baldintza bete beharko dituzte ikasleak:

- Saioen % 80etara etortzea.
- On-line egin beharreko jarduerak burutzea.

- **IRAKASKUNTZA-MODALITATEA: ERDI PRESENTZIALA**

Ikastaro honek 65 orduko iraupena izango du, 4 ikasgaitan banatuta. Ikasgai bakoitzeko lan bat eskatuko da, lau ordu ez-presentzialen baliokidea izango dena. Lehenengo ikasgaiak hiru saio hartuko ditu eta beste hiruek lau saio. Ahozko generoen ikasgaiaren barruan bi lan eskatuko zaizkie ikasleei, eta lan horien kreditu-balioekin osatuko da ikastaroak hartzen dituen kreditu kopurua (65).

Saio presentzialak 3 ordukoak izango dira, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara eta asteazken arratsaldez emango dira, **Gasteizko Kirol eta Hezkuntza Fakultatean**.

- **IZEN-EMATEA ETA MATRIKULA**

Ikastaroan izena emateko epea zabalik egongo da **2023ko azaroaren 6tik abenduaren 1era**. Horretarako, izen-emate [FORMULARIOA](#) bete beharko da datu orokorrekin, eta aurkezpen-gutun laburrekin (gehienez 10 lerrokoa).



Ikastaroan onartuak diren ikasleei mezu elektronikoz jakinaraziko zaie eta matrikula egingo dute **2023ko abenduaren 11tik 15era**.

- Ikasleek eta langabetuek **50 euroko** matrikula ordainduko dute.
- Ikasleak ez direnek **150 euroko** matrikula ordainduko dute.
- Galtzagorri elkarteko bazkideek **100 euroko** matrikula ordainduko dute.

- **IKASKETA-PLANA ETA KRONOGRAMA**

1. HGL: sarrera. Definizioa, historia eta egungo egoera.		
Ikasgai honi dagokion lana bakarra izango da eta Juan Karlos Alonsok gidatuko du.		
Haur Literaturaren definizioa eta historia laburra. Euskal haur literaturaren historia. HGL generoen sailkapen orokorra: poesia, ahozko literatura, ipuinak, narrazioa, albuma, komikia...	Urtarrilak 10	Xabier Etxaniz Erle
Euskal Haur eta Gazte literaturaren sistema gaur egun editorearen esperientziatik itzulpengintzan arreta berezia jarrita	Urtarrilak 17	Garazi Arrula
Haur Literaturaren garrantzia haur eta gazteen garapen psikologikoan	Urtarrilak 24	Juan Karlos Alonso
2. Irakurketa literarioaren testuinguruak: gizarte elebidunean irakurtzea, irakurketaren lekua ikastetxean eta bitartekaritza		
Ikasgai honi dagokion lana bakarra izango da eta Ibon Egañak gidatuko du.		
Irakurketa literarioaren lekua ikastetxean eta Irakurketa Planetan. Irakurketa-esparruak eta beren arteko loturak: gizartea, etxea, eskola, udal eta eskola liburutegiak	Urtarrilak 31	Ibon Egaña
Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa eta hezkuntza-egoera askotarikoak. Elebitasuna, diglosia eta irakurketa: egoera soziolinguistikoaren eragina haur eta gazteen irakurketan	Otsailak 7	Paula Kasares
Irakurzaletasunaren sustapena eta bitartekarien rola. Liburuak aukeratzeko gomendioak eta irizpideak	Otsailak 14	Mikel Ayerbe
Bitartekaritza praktikak	Otsailak 21	Mireia Delgado
3. HGL-ko ahozko generoak: poesia, antzerkia eta narratiba		
Ikasgai honi dagozkion lanak Juan Kruz Igerabidek eta Mariasun Landak gidatuko dituzte		
Ahozko tradizioko testu poetikoak Tradizio idatziko haur-poesia	Otsailak 28	Juan Kruz Igerabide
Ahozko tradizioko ipuinak. Ipuin-kontaktak	Martxoak 6	Yolanda Arrieta
Dramatizazioa eta antzerkia	Martxoak 13	Intza Alkain
Irakurketa eta idazketa sortzailea lotzeko jarduerak	Martxoak 20	Mariasun Landa



4. HGL-ko genero ikonografikoak: komikia, albuma eta ilustrazioa

Ikasgai honi dagokion lana bakarra izango da eta Karla Fernández de Gamboak gidatuko du

Komikiak interpretatzeko baliabideak eta lanketarako estrategia didaktikoak	Martxoak 27	Amaia Serrano
Album ilustratua: definizioa, elementuak eta ezaugarriak. Euskal Herriko tradizioa.	Apirilak 10	Karla Fernández de Gamboa
Album ilustratuetan oinarritutako proiektuak	Apirilak 17	Amaia Hennebutte
Ilustrazioa HGLn	Apirilak 24	Maite Gurrutxaga